



**Ez zaizu  
zerbait jasotzea  
ahaztu?**

**KALEETAN ETA  
LORATEGIETAN,  
JASO ITZAZU ZURE  
TXAKURRAREN  
GOROTZAK**

Begiratu zure ingurura. Ikusi duzu zer gertatzen den Leioako lorategietan? Txakurren komunak izatearekin gogaituta, ahotsa altxatzea eta bizi duten egoeraz kexatzea erabaki dute. Lorategiak, Leioako biztanleek ondoen baloratutako apaingarrietako bat, txakurren gorotzez beteta daude; izan ere, txakur-jabe batzuek lorategiak komunak direla uste dute.

Guztiok ukitzen gaituen akats larria da; izan ere, gune horietako batzuk leku osasungaitz bihurtzen dira, ikusten eta "jasaten" diren gorotzen kopurua dela eta. Nahiz eta gero eta gehiago diren beraien animalien gorotzak jasotzen dituzten txakur-jabeak, oraindik badaude beraien txakurren gorotzak lorategi eta kaleetatik jasotzen ez dituzten pertsonak. Arazoa garrantzitsua da Leioako zenbait tokitan, leku horietan berdegune gutxiago daudelako eta txakurren portzentajea handiago delako.

**Entzun zure txakurrari, eta bildu bere gorotzak.** Keinu xume horrekin, lan garrantzitsua egingo duzu Leioako kale eta lorategiak garbi eta egoera osasungarrian mantentzeko. Zure txakurrak ezin ditu berak bakarrik jaso. Beste gauza asko ere ezin ditu egin, besteak beste, jatekoa zerbitzatu, ilea orraztu edo albañariarenera joan, eta, hala ere, zuk lagundu egiten diozu bere oinarrizko beharrietan.

Horrela, berari ez ezik, leioztarrei ere lagunduko diezu. Izan ere, zure txakurrak ez du gorotzik zapalduko eta ez da gorotzen gainean jauzika ibiliko, eta, era berean, zure herrikideek ez dute lorategietan izaten den kiratsa jasan beharko eta ez dira kalean zehar uzten dituzun gorotzak saihesten ibili beharko.

Konponbide erraz hori zure eskuetan dago, eta, horri esker, guztiak izango gara onuradunak. Halaber, gogoan izan ekin-tza mota horiek Animaliak Edukitzea Arautzen duen Ordenantzan daudela jasota. Bertan, **zenbateko desberdineko zigorrak daude jasota**, tipologiaren arabera; **isunak 30,05 eurotik 601,01 eurora bitartekoak izan daitezke.**

Txakurra edukitzeak jokabide eta neurri batzuk bete beharra eskatzen du, mantenimendu, identifikazio, jabetza eta gizar-tean izan beharreko bizikidetzeari dagokienez.

Hori guztia dela eta, badaude txakurren eta gizon-emakumeen arteko harreman egokian eragina duten eta kontuan hartu behar diren zenbait debeku. Araudia zorrotzagoa da arraza arriskutsuekin; izan ere, kasu horretan, txakurrek eta jabeek betekizun eta neurri zorrotzagoak bete behar dituzte.



Zure txakurrak gorotzak bide publikoan edo lorategietan uzten dituenean, jaso itzazu poltsa batekin eta bota ezazu, itxita, zaborretara. Horrela, eragozpen eta arazo ugari saihestuko diezu oinezkoei, udal lorezainei eta parkeak eta lorategiak jolasteko erabiltzen dituzten neska-mutiko ugariei.

**Bilketa-lan hori errazteko**, txakurren gorotzak biltzeko 10 poltsako pakete bat oparituko dizugu. Sistema praktikoa da. Txakurra-  
ren uhaletik eraman ahal izango dugu esekita, eta, horrela, beti izango duzu eskura poltsa bat. Ordezko poltsak animalien dendetan eta albaitaritza-zentroetan aurki ditzakezu arazorik gabe.

**Loreak bai,  
gorotzak  
ez.**

**Lorategia  
naiz, ez  
komuna.**

Txakurra badaukazu, gogoan izan...

- identifikatuta eta erroldatuta izan behar duzula;
- arriskutsua izan daitekeen txakurra edukitzeko, aurretiaz ad-ministrazio-lizentzia lortu behar dela;
- hiri-bide eta espazio publikoetan, bai eta higiezin kolektiboen alde komunean ere, kontrolpean eta kate edo uhal batekin lotuta joan behar direla. Katea edo uhal egokia izan behar da animalia-aren ezaugarrietarako eta gehienez bi metroko luzera izan behar du;
- zu zara txakurrak eragin ditzakeen min, kalte edo eragozpe-nen erantzulea.

**Txakurrak ez  
daukalako  
errua.**

**Irtenbidea  
zure eskuetan  
dago.**

